

elkar

UDA 2020
60. ZENBAKIA
www.elkar.eus



TESTU2020 LIBURUAK

**Etzetik edo liburu-dendan eskuratu
ikasturte berrirako behar duzun guztia**

Elige la opción que más te convenga

**Etzetik erosi eta
liburu-dendan jaso**
Compra desde casa
y recoge en la librería



**Etzetik erosi eta
etxean bertan jaso**
Compra desde casa
y recíbelo en casa

**Liburu-dendan erosi eta
etxera bidaliko dizugu**
Compra en la librería
y te lo enviamos a casa



**Liburu-dendan erosi
segurtasun neurri guztiekin**
Compra en la librería con
todas las medidas de seguridad

ekar

www.ekar.eus

*Zure
beharretara
egokitua*



JOSEBA LARRATXE

12. elkar ILUSTRAZIO eta IPUI LEHIAKETA



Duela hamabi urte, **elkar** Fundazioak haurren eta gazteen artean euskarazko irakurza-letasuna eta sormena bultzatzeko **elkar** ilustrazio eta ipuin Lehiaketa abian jarri zuen. Urtero, milaka haurrek eta gazteek euren lanak aurkeztu dituzte. Aurtengoan ere hala izan da nahiz eta Covid 19ak sortutako osasun krisi egoeragatik, eta haren ondorioz ikas-tetxeak itxita egon direlako, parte hartzea beste urteetan baino txikiagoa izan den. Hala ere, orotara, 4.825 jaso ditugu. Nabarmenezkoa da komikien eta ipuinen kategoriek gora egin dutela.

12. edizio honetan, txikienek **Paddy Rekaldere**n "Kaioa" ipuina irakurri eta ilustratu behar zuten; koxkorragoek **Mai Egurzaren** ilustrazioa hartu behar zuten oinarri bezala ipuin bat idazteko; eta helduenek ipuin klasiko bat komiki ala bineta bihurtu.



Irabazleen zerrenda osatua <http://bit.ly/ilustrazio-ipuin-lehiaketa>

elkar
liburu-
dendak

ALGORTA (GETXO)
Tellebxe 11
94 491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
94 379 78 29

BAIONA
Arsenal plaza
559 59 35 14

BASAURI
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA
Ibargarai 7
94 376 40 50

BILBO
Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Iparagirre 26
94 424 02 28
Zamudioko
ataria Zazpikale
94 416 14 50

DONOSTIA
Fermín Calbetón 21
94 342 00 80
Bergara 6
94 342 63 50

GASTEIZ
San Prudencio 7
94 514 45 01
Apraiztarak 1
Campus
94 514 16 70

HERNANI
Kale Nagusia 30
94 355 15 37
IRUN
Colón pasealekua 8
94 363 17 26

IRUÑEA
Comedias 14
94 822 41 67
Leire 9
94 817 55 38

TOLOSA
Arostegieta z/g
94 367 35 33

El mal de Corcira Lorenzo Silva

DESTINO



**BEVILACQUA CUENTA
POR FIN SU PASADO EN LA
LUCHA ANTITERRORISTA
EN EL PAÍS VASCO.**

La novela más esperada
de la serie negra de mayor éxito.

FIKZIOAREN ETA ERREALITATEAREN ARTEAN

Atenas klasikotik *Boccaccio*ren *Dekameron*eko Erdi Aro-raino, eta handik *Camusen* XX. mendeko *Izurritea* nobel-araino, aldiro izan du gizakiak bisitari Dama Beltza izurritearen mozarropean. Eta hari ihes egin nahian, fikzioa eta liburuak ondasun paregabeak gertatu izan zaizkio. Norbaitek pentsa lezake urrutiegi joan ote naizen konparazioan; baina, ez, *Dekameron*ari *Boccaccio* idatzi zion sarrerak gaur-gaurkoa dirudi. Literaturak balizko munduak sortzen ditu, bizi dugunaren metafora gisa funtzionatu ohi dutenak. Baina konfinamenduaren ironiari esker, mundua bera bihurtu zaigu literaturaren metafora. Eta galdutako bizitzaren arnasa biriketatuzko igarobaimen ziurrena fikzioa izan da. Baiki, fikzioa da Noeren ontzira adar berdea mokoan usoak ekarri zuena; izan ere, berandu gabe, bizitzaren taupada berreskuratzeko esperantza zabaldu baitzuen berarekin.

Kartzelaldia izan da konfinamenduaren metaforarik absolutuena; handik idatzia da *Funanbulistaren beldurra*. Hogeita bi urteko ETAkidea atxilotu eta hurrengo hamasei urteko kartzelaldiaren berri ematen digu *Karlos Gorrindok*. Barne bilakaera baten abentura luzea da harena. Norbere egiagatik bestearen egia eraitsi eta ezaba zezakeela uste sendo eta indartsua izatetik, egia ez dela inoiz singularrean existitzen konbentzimenduan egindako narratiba eskaintzen zaigu liburuan. Inorena ez bada egia, ezin ba egiaren izenean inor hil. Gaur egunetik irakurritako harrigarriak egiten zaizkigu urte haietako (80ko urteak) eztabaidetan ohikoa zen hiztegia, ideologiak oretutako hiztegi dogmatiko, abstraktu eta absolutua. Artean politikoki sekularizatu gabeko hiztegi funanbulista. Gure iragan hurbilaren memoria petralaren lekuko bikaina da liburuak.

Noelia Lorenzoren *La estrella de quince puntas* liburuak krimenaren generoan barneratzen gaitu. "Cosecha roja"ko beste izenburuak bezala, berea ere nobela beltza edo poliziakoa da; eta, beste behin, Ertzaintzako Eider de-tek-tibea eta Jon Ander lankideak protagonismo bikaina



ARGIANTZA
Pello Lizarralde
EREIN

**FUNANBULISTAREN
BELDURRA**
Karlos Gorrindo
EREIN

**LA ESTRELLA DE
QUINCE PUNTAS**
Noelia Lorenzo Pino
EREIN

izango dute fikzioan. Baina, non dago, generoak berezkoak dituen arau protokolarioez haratago, nobelaren xarma? Nobelako protagonisten arteko harreman sarean, gehienetan perbertsioaren azpilduretan gorpuztuak. Psikiatren manualetan arrunta litzatekeena irudikatzen digu fikzioan *Noeliak*, alegia, pertsona nagusien perbertsioen iturria umetan jasandako abusueta dagoela. Iraganeko buztin haiek, gaurko lokatzak. Irudimena eta ausardia narratiboak dira nobelaren zutabe nagusiak.

Argiantza da *Pello Lizarralderen* orain arteko azken nobelaren izenburua. Nobelabiribila, inondik ere. Kamera (zine-matografikoa) iristen ez den lekuetara iristen da literatura. Hala ere, *Lizarralderen* literaturan kamera oso exigentea da, eta pertsonaien arnasotsa bera ere bildu nahi luke

kamera horrek. Prosa bikain batean euria ere entzun egiten da. Atzean gelditzen ari den mundua du kontagai *Argiantzak*, zenbaki eta kalkulu hutsak bizitzaren beste dimentsio guztiak azpiratu aurreko mundu bat. Egilearen begirada zorrotza baina sosegu handikoa da, eta oharkabea bezala arnastuko du irakurleak galeraren dimentsioa. Izate eta bizitzeko aldarte bati ematen zaio adioa nobelan.

Irakurri liburuak! Ez dago gure gizatasuna eraikitzeko modu bikainagorik!

IÑAKI ALDEKOA BEITIA
Erein argitaletzeko editorea

UNA EMOCIONANTE HISTORIA
SOBRE LA LIBERTAD Y LA ESPERANZA
EN AUSCHWITZ.

BASADA EN HECHOS REALES

PLAZA JAMES
Penguin
Random House
Grupo Editorial

Disponible
audiolibro y ebook

f t i @ megustaleer
www.megustaleer.com



“Milaka istorio
interesgarri
daude gure amaxi-
aitatxiengan”

MADDI ANE TXOPERENA

ARGAZKIA: GARAZI CONDE ORUBE

**Lehen liburua kaleratu du Maddi Ane Txoperena Iribarrenek (Hendaia, 1994),
Gazteluma bekaren laguntzaz: *Ene baitan bizi da*. Marie protagonista lapurtarra
Parisen bizi da, baina udako oporretan, gurasoenera joan ordez amaxxiengana
joanen da, eta bien istorio txirikordatuak osatuko dute eleberriaren haria.**

**Zure lehen esperientzia da hau literaturan, ala
lehendik ere aritua zinen?**

Nire izenean idazten dudana lehen lan argitaratua da, bai. Aitzinetik idatzi izan ditut ipuinak-eta, nire buruarentzat, edo ezizenez sinatuak, aldikarrietan eta.

Marie protagonista bezala, zu ere Lapurdiko kostaren eta Nafarroako Bortzirien artean bizi izan zara. Zer du zugandik Mariek eta zer du zure irudimenetik?

Marie nire antzekoak ditu ezaugarri batzuk: Lapurdi eta Nafarroaren arteko joan-etorria, adina gutxi gorabehera, amaxxiarekin duen harremana ere bai, hein batean. Gainerako guziaz irudimenaren produktua da. Arriskua ere badu norbere buruaren antza izan deza-



**ENE BAITAN
BIZI DA**
Maddi Ane
Txoperena Iribarren
ELKAR

keen pertsonaia bat asmatzek, baina uste dut aldi berean errazago asma ditzakedala nire hurbileko neska baten kezak eta bizipenak.

Liburuan bi belaunaldi dira nagusi, eta haien istoriak kontatzen dira: batetik, zure adineko neska-mutilen kezak; bestetik, haien amaxxi mundua, 50eko hamarkada... Zerk piztu dizu gerraosteko garai horrekiko jakin-mina?

Bereziki, nire amaxxi kontaturiko istorioek, hurbilena dudana delako-edo. Baina oro har uste dut nahiko erromantikoa izan naizela beti garai zaharragoekiko. Urte gutitan bizimodua anitz aldatu dela ikusten dut, galteaz direla pentsatzeko eta egiteko modu batzuk, eta zorte bat iruditzen zait oraindik ere bertze garai haiek bizi izan zituztenak bizirik eta hurbil edukitzea. Milaka istorio interesgarri daude haiengan, eta, kasurik egiten ez badiegu, galdu egingen dira.

Aberatsen etxeetan neskame aritzen ziren emakumezkoak dira protagonista liburuaren harietako batean, Josefina eta bere lagunak; fikziozko lanetan ia beti itzalean geratu izan den gizarte-klase hori bindikatu nahi izan duzu?

Modu batean, bai. Gure eskualdean anitz hitz egin eta idatzi da Ameriketara joan ziren artzainez edo kontrabandoan aritzen ziren gizonezkoek, baina ez hainbertze kontrabandoan aritu ziren emakumeek edota Ipar Euskal Herrira eta Frantziara migratu zuten neskatok. Historia modu partzialean ailegatu da guregana, emakumeak eta haiek egindako zaintza lanak ez direlako kontuan hartu, eta erranen nuke emakumeek eurek ere anitzetan ez diotela baliorik eman egin dutenari.

Gazteluma burtsaren laguntza ukan duzu lan hau idazteko. Zer dute horrelako bekek: babes, presioa, bultzada...?

Denetarik pixka bat, baina bereziki akuilu dira, nik uste. Alde batetik dago dataren kontua, eta bertzea da parte ekonomikoa: niri aukera eman dit hilabete batzuek lasai ibiltzeko, bertze soldatapeko lanik egin beharrik gabe. Pribilegiatu sentsazioa izan dut, baina uste dut ez lukeela hala behar. Hor du parte txarra beken sistemak ere: guti batzuek baino ez dutela lortzen.

TERESA LARREA
Kazetaria

GRAMATIKA LAN-KOADERNO BERRIAK

B2-C1



JOXERRA BUSTILLO
Escrítor



Proposamena

LEAN A OLGA TOKARCZUK

No suelo recomendar lecturas, cada cual debe trazarse su propio camino sin dejarse llevar por las influencias del entorno. Si así lo hiciera se quedaría varado en el estanque de los superventas, perdiéndose la agitada corriente de la literatura más transgresora e incómoda.

Soy un devoto de la literatura centroeuropa, en especial de la austriaca, aunque también he leído a autores polacos, checos o de la escurridiza Galitzia. Apunten a Hans Lebert, Bohumil Hrabal, Soma Morgenstern o Joseph Roth, nunca fallan.


Aprovecho la ocasión para reivindicar a las escritoras, menos numerosas que los escritores, pero con la capacidad de con-

tarnos las cosas de otra manera, ni mejor ni peor, distinta. Me encanta leer a Alice Munro, a Natalia Ginzburg, a Elfriede Jelinek, tan diferentes, tan deliciosas.

Ahora asistimos a la confirmación de la polaca Olga Tokarczuk, Nobel 2018, cuyos libros se empiezan a publicar en algunas lenguas de la península. Recomendando recorrer sus títulos comenzando con *Sobre los huesos de los muertos* (Siruela), una novela de intriga en la cual la naturaleza se convierte en el personaje clave de la trama, dentro de un relato en el que se retrata la Polonia rural de la mano de una mujer que regresa al campo tras una vida entera en la ciudad.

Llega ahora a las librerías *Un lugar llamado Antaño*, en la que se dibuja un mundo mágico donde se desenvuelven variados personajes, unos inventados, otros basados en su propia familia, como la abuela Misis. Un mundo abigarrado, repleto de imaginación, que estoy seguro captará la atención de quien lo lea.

Concluyo. De la obra de Tokarczuk se desprende que no le gusta nada el mundo en el que vive y que el respeto a la naturaleza, en especial a los animales, debe ser premisa fundamental en la compleja tarea hacia la construcción de un planeta menos agresivo y un poquito mejor que el que tenemos. Léanla.



UN LUGAR LLAMADO ANTAÑO
Olga Tokarczuk
ANAGRAMA

Profila JOSE LUIS ZUMETA

ARTEAREN MUGAK ZABALDU ZITUEN ARTISTA



ISMAEL MANTEROLA
EHuko irakaslea

Euskal kulturak erreferentzia ziko pertsonaia galdu zuen aurreko apurtean. Jose Luis Zumeta artista inportantea zen, 60ko hamarkadako euskal kultura hurrengo mendearekin lotu zuen horietakoa.

Belaunaldi hartako egileek argi utzi ziguten gizartearekin zuten konpromisoa eta arteak kulturako beste esparru batzuekin zuten lotura. 60ko hamarkada une erabakigarria izan zen euskal kulturarentzat, desagertzeko edo etorkizunerako bizirik mantentzeko aukeren arteko borrokan sumatu zuten garaiko egile askok, eta izugarrizko ahalegina egin behar izan zuten aurrera jarraitzeko, aurkako testiguruaren erdian.

Saiakera horien artean, Zumeta bezalako egileek artistaren lan intelektuala elite baten esku egon behar zuela onartu beharrean, jendearekin sortu eta partekatu behar zela uste zuten, borroka sozialari eta politikari lotuta. Beraz, artea ahalik eta gehien zabaltzea izan zen Zumetaren garaiko sortzaileen lana. Horregatik, musika edo literaturarekin bat egitea ez zen arrotza artistentzat, idazleak edo musikariak



lagunak edo kideak zituztelako. Modu naturalean ulertutako kolaborazio horietako asko ezagutzen ditugu, baina, seguru asko, Zumetak Mikel Laboaren diskoen azaletarako egindakoak izango dira jende gehienak ezagutzen dituen lanak. Hain zuzen, Jose Luis Zumeta izan zen musikarekin edo idazleekin batera lan gehien egin zuen artista.



Literaturarekin izandako harremana bere laguna eta herrikidea zen Joxean Artzeren eskutik etorri zen. 1973ko *Laino guztien azpitik...* eta *Eta sasi guztien gainetik...* izeneko liburuak garai hartako esperimentazioaren emaitza harrigarriak dira. Urteak pasatu ondoren, Bernardo Atxagaren *Nueva Etiopia* (Detursa, 1996) liburu-diskoaren

azala eta ilustrazioak egin zituen. Azken urteetako kolaborazioen bat aipatzearren, 2011n Pako Aristiren Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak (Elkar) liburuaren azala jarri daiteke eta Susarako Rafa Eguigurenen *Chevrolet Tropikala* (2007) eta *Txipirotak bere beltzean* (2019).

Artzerekin zuten harreman estuaren antzekoa izan zen Mikel Laboarekin izandako laguntasuna eta maitasuna. Hamaika disko azal margotu zizkion 1974an *Bat hiru* argitaratu zenetik. Zumetak Laboa ondo ezagutzen zuen, asko konpartitzen zuten eta ez da arraroa konplizitate horrek utzitako uztza oparoa. Horregatik azken urteetan Laboari buruz argitaratu diren liburuetan ere, Zumetak egin ditu azalak: 2013ko *Xume. Laboa Zumetarenean* eta Marisol Bastidak 2014an argitaratutako *Memoriak. Mikel Laboaren biografia* bat (Elkar). Azkenik, Zumetak berak bultzatutako liburuak ere aipatu behar dira: *Zumeta 98. Mendebal Afrika, bidai bloka* eta buruko gaixotasunak zituztenekin batera landutako *Oi! Bihotz/Ay! Corazón/Oh! Heart* artista liburu ederra.



IRATI JIMENEZ IDAZLEA


LEHEN ESALDIAREKIN MAITEMINTZEN GARA

“Terry Lennox lehen aldiz ikusi nuenean mozkor zegoen, Silver Wraith estiloko Rolls-Royce batean, The Dancerseko terrazaren aurrean”. Liburu batzuekin ez duzu besterik behar: esaldi bat eta badakizu maitemindu egingo zarela. Urte asko pasa dira **Raymond Chandler**ren *Ez adiorik* (Igela, 2001) lehen aldiz negar artean bukatu nuenetik baina ezin dut lehen esaldi hori hotzikararik gabe irakurri. “Terry Lennox lehen aldiz ikusi nuenean...”. Momentu horretan edertasun terrible bat hasten da, niretzat ahaztezina.

Hasierak oso inportanteak dira literaturan, idazleentzako zein irakurleentzako. Idazleak askotan gal lezake bere buruan konfiantza edo adorea baina lortu baldin badu maiteminduko duen hasiera bat idaztea, beti lortu dezake adorea. Hala uste zuen Baudelaire handiak eta guk baino gehiagozekien literaturaz. Irakurle batentzat, berriz, hasiera fundamental da. Zuek ez dakit baina nik lehen orrialdea irakurrita erabaki dut gehienetan liburu bat irakurtzen jarraitu ala ez. Hor egoten da mila aldiz esanagatik berria dirudien magia hori, irakurtzera bultzatzen nauena.

On *Kixoter*en hasieran narratzaileak gauza batekin ez duela akordatu nahi esaten digu eta berehala interesa sentitzen dugu. “Zeukan izenik gogora ekarri ere nahi ez dudana Mantxako basa-herri batean...”. **George Orwell**en 1984an (Txalaparta, 2007) eguraldiaren berri ematen zaigu, baina ezohiko xehetasun batek zirrara eragiten digu, oso bestelako mundu batera garamatza. “Apirileko egun argi eta hotz bat zen, eta erlojuak hamahiruak jotzen ari ziren”. *La Regentaren* lehen esaldian **Leopoldo Alasek** hiri batera garamatza eta kontraesan ezin interesgarriago batekin hiri horri buruz gehiago jakiteko gogoak pizten digu: “Hiri heroiko hura siesta egiten ari zen”. *Obabakoak* (Erein, 1988) hartan bazen hasiera gogoangarri bat baino gehiago. Hauxe nire favoritoa: “Bazen behin, Bagdadeko hurian, merkataria aberats baten zerbitzuan lan egiten zuen Dayoub izeneko morroi bat”.

Gustatzen zaizkidan hasierak irakurlearen letaginak zorroztu egiten dituzte. Irakurtzeko gogoak ematen dute. “Gaua zen, gaua izatea merezi zuen”. **Harkaitz Cano**, *Twist* (Susa). “Laguna izoztu egin da. Horixe irakurri dut gaur jaso dudana oharretako batean”. **Joseba Sarrionandia**, *Lagun izoztua* (Elkar, 2001). “Urte bi eman ditu Onofrek herritik kanpo, itsasoak hausten, eta etorri denean mundu zabaleko hotzak berarekin ekarri ditu”. **Edorta Jimenez**,



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Azken fusila (Susa, 1993). “Roka ero putak aitaren eskopetarekin bere buruari tiro eman zionean hasi zen dena”. *Eskuetan mapak* (Txalaparta, 2007), **Asier Serrano**.

Oraindik ez dut irakurri *Ene baitan bizi da* (Elkar, 2020), **Ane Maddi Txoperenaren** lehenbiziko eleberria baina begira lehen esaldia: “Aski zaku ttipian sartu zaizkio zazpi urtez metatzen arituriko ondasun guziak”. Zer gertatu den jakin nahi dut, zergatik zazpi urte, zergatik hain zaku txikia.

Azken urteotan hasiera gogoangarri ugari eman dizkit euskal literaturak, zorionez. **Eneko Barberenaren** *Afri-*

kanerrak (Elkar, 2019) bikaina galdera batekin hasten da “Non da Omar?” eta **Karmele Jaioren** *Aitaren etxea* (Elkar, 2019) ezohiko zarata batekin. “Tiro hotsak mendian. Berriz entzun dituzu hor goitik, tontorretik”. **Amek ez dute** (Elkar, 2018) irakurtzen hasi nintzenean segituan jakin nuen maitemindu egingo nintzela: “Uda betean izan zen. Ostegun arratsalde batez”.

Lehen esaldi batek promesa bat egiten dizu, botereztu betea. Liburu botereitsuak promesa hori betetzen dakitenak dira. Bilatu beti hasiera onak. Bizirik daudenak eta bizirik sentiarazten zaituztenak.

**“La escritura
tiene la facultad
suprema de
ayudarnos a pensar”**

**JAVIER
SIERRA**

FOTOGRAFÍA: G. AVERBE

El exitoso escritor Javier Sierra (Teruel, 1971) tenía dos proyectos sobre la mesa cuando llegó la pandemia y sintió la necesidad de escribir sobre lo que estaba sucediendo. “En tiempos exigentes la novela debe ayudarnos a ordenar las ideas y proveernos de esperanza suficiente para afrontar los retos que se nos vienen encima”, asegura. De esa pulsión surge *El mensaje de Pandora*, una novela que bebe de los clásicos, publicada por Planeta.

La novela es una larga carta.

Sí, la dirige una tía a su sobrina de dieciocho años, y en ella le transmite una serie de descubrimientos que ha hecho sobre la última pandemia planetaria y su origen. La carta contiene recuerdos de viajes, dibujos y esquemas que descubren a la joven que lo que tiene entre manos es una especie de manual para alcanzar el futuro. El hallazgo la alcanza como un relámpago.

¿Cuál es para usted la misión de la escritura?

La escritura fue inventada hace por lo menos cuatro mil años para, en primer lugar, preservar la memoria. Pero también para poner orden al caos de la vida y darnos la falsa sensación de que podemos llegar a entenderla y dominarla. Cada autor hace de esa herramienta un uso diferente, y está en su derecho de hacerlo. Pero, para mí, la escritura tiene la facultad suprema de ayudarnos a pensar, al tiempo que con ella creamos el mundo en el que vivimos. Creo que hay que ser muy cuidadoso con lo que uno escribe, porque con la palabra se están sincronizando las mentes de quienes la leen, orientándolas hacia el bien... o no.

«Nadie mira atrás para decidir qué camino tomar. Y es un error.» Por eso, supongo, este libro mira hacia atrás y bebe, incluso, de la mitología griega. ¡Exacto! Es imposible no asombrarse al examinar los clásicos. Con mucha menos información que nosotros,



**EL MENSAJE
DE PANDORA**
Javier Sierra
PLANETA

pero con una capacidad de observación encomiable, construyeron mitos en los que disfrazaron auténticas teorías científicas. Por ejemplo, la idea de que la vida llegó a la Tierra desde las profundidades del espacio —lo que los modernos astrobiólogos llaman «panspermia»— ya estaba dibujada en textos griegos y egipcios. Estos últimos, por ejemplo, hablaban de que la vida fue traída hasta el Nilo a bordo de una piedra sagrada caída del cielo, llamada *Benben*. La veneraron durante siglos en la antigua ciudad de Heliópolis, y hoy creemos que fue un meteorito de hierro no muy diferente a la Piedra Negra que los musulmanes todavía veneran en La Meca, y que creen que es una roca del Paraíso. El lugar donde nació la vida, claro. ¿No le parece curioso?

Hay mucho que revisar porque las pandemias víricas nacieron con la invención de la agricultura y la ganadería hace 10.000 años...

Durante la crisis de la COVID-19 hemos aprendido que los coronavirus son patógenos zoonóticos, esto es, organismos que saltan del reino animal al humano y se expanden con virulencia. Esas transferencias empezaron en el Neolítico, cuando nuestra especie empezó a convivir con los animales que domesticaron y a organizarse en comunidades cada vez más grandes. Su irrupción diezmo a esas tribus antiguas, pero a la vez las forzó a evolucionar y a prepararse para la siguiente plaga. Y así crecimos y evolucionamos a lo largo de miles de años... Sí. De algún modo, la enfermedad nos ha ayudado a levantar nuestra civilización.

Juega usted con la hipótesis, sorprendente, de que estos virus pudieron haber llegado —y siguen haciéndolo— desde el espacio exterior.

La idea no es mía. La defendieron mentes del siglo xx tan brillantes como Francis Crick —Premio Nobel de Medicina por el descubrimiento de la doble hélice del ADN— o el astrónomo británico sir Fred Hoyle. Según ellos, meteoritos y cometas transportan en su interior patógenos que infectan continuamente nuestra atmósfera. Piénselo. Cada día, 100.000 kilos de ese polvo cósmico entran en nuestra atmósfera. En la remota prehistoria de este planeta esa «lluvia» pudo ayudar a desencadenar las primeras formas de vida... Pero hoy pueden traernos también patógenos que dan lugar a enfermedades que, a veces, nos afectan. Desde ese punto de vista, estoy seguro de que en el futuro no solo vacunaremos individuos, sino también nuestra atmósfera. Al tiempo.

La mal llamada gripe española levantó los modernos sistemas de sanidad universal. ¿Cree que esta pandemia nos dejará algo bueno?

Ya lo ha hecho. De entrada, ha obligado a los gobiernos de todo el planeta a poner en marcha programas de ayuda económicos y sanitarios para los más desfavorecidos —que lo eran ya mucho antes de la pandemia—. También nos ha ayudado a descubrir el enorme potencial de las nuevas tecnologías en ámbitos tan dispares como el trabajo, la enseñanza o la comunicación personal. Y confío en que nos traerá una generación de escritores que reflexionarán mucho mejor sobre la sociedad que construirá nuestro futuro antes de la siguiente crisis sanitaria global. Que llegará, claro.

TXANI RODRÍGUEZ
Periodista

Hitzak hots

Antton Valverdek bost euskal poetaren olerkiak musikatu ditu



HITZAK HOTS

Antton Valverde · Anjel Lertxundi
Miren Agur Meabe · Jule Goikoetxea ·
Tere Irastortza · Arantxa Urretabizkaia ·
Itxaro Borda
PAMIELA

Hitzak hots poesia kantaldia izan zen lehenengo, eta liburuxka eta dvd bihurtuta dator orain, Pamiela argitaletxearen eskutik. Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Jule Goikoetxea, Miren Agur Meabe eta Tere Irastortzaren olerkiei Antton Valverdek jarri die musika. Orkestra osoaren zuzendari, ostera, Anjel Lertxundi aritu da.

Musika eta poesia aspaldiko adiskideak dira Euskal Herrian. Bide luzea egin dute elkarri lagunduta. Anjel Lertxundiren irudiko, "poesia irakurketaren bidez zabaldu da gehien, baina musikak asko lagundu dio hainbat testu ezagutarazteari. Lizardik eta Lauaxetak, adibidez, ez luke gaur daukaten oihartzunik kantariak emandako aupadarak gabe".

Lizardi eta Lauaxeta musikatu dagoen Antton Valverde arduratu da *Hitzak hots* proiektuko doinuez. Izan ere, ideia Lertxundi eta Valverderen arteko solasaldi bateko galderak piztu zuen. Hainbeste olerkariaren lanak musikatu dituen herri honetan, zergatik dira hain gutxi emakumeen olerki musikatuak?

Ez da izango ez dagoelako emakume olerkaririk. Esan eta egin. Lertxundik poetak aukeratu zituen. Zeren arabera? "Gustu kontuak daude, noski. Baina baita euskararen ahots desberdinen –euskalkien– araberrako hautamena ere. Normala da nik nire belaunaldi eta ondoren samarrekoei erreparatzea –hobeto ezagutzen ditut gazteak baino–, baina belaunaldi gazteak kanpoan utzi gabe", esan digu Lertxundik.

Bitxia ere bada. Aurreko batean, aldizkari honetan bertan, Joseba Sarrionandiak esan zuen bere olerkiak irakurtzeko pentsatuta daudela. Nork eta 150en bat kantu sorrarazi dituen poetak. Antzera dabil, ostera, Arantxa Urretabizkaia, olerkien musikaltateaz galdetuta. "Nire musika gaitasuna eskasa da oso. Nik eritmoari erreparatzen diot", aitortu digu.

Baina poetak bere olerkia sortzean musikaltateari jaramonik ez egiteak ez omen dakar aparteko trabarik. Antton Valverderen aburuz, "edozein poema izan daiteke musikatu. Kontua da, nolabaiteko lotura sortarazi behar duela musikagilearekiko; lotura intelektual, sentimental, edozein motatakoa".

Lertxundik proposatutako poeten artean, Valverdek olerkiak hautatu zituen. "Bai estiloak eta bai gaiak, diferente izan zitezela nahi izan nuen. Zortzi dira denetara, eta zortzi horietatik pare bat edo hiru lehen pasadan aukeratu nituen; esate baterako, Tere Irastortzaren *Lo kanta ama batentzat* hasieratik iruditu zitzaidan gozoa, iradokitzailea eta originala. Gehienetan abiapuntua hitzen xarma izan da. Beste batzuetan planteamenduen interesa".

Horrela gauzatu zen *Hitzak hots*. Lertxundi hitzaurre literarioaz arduratu zen, poeta bakoitzak bere olerkiari sarbidea jarri zion eta Antton Valverdek, Alos Duo bikoitearen laguntzaz, abesti bihurtu zituen. Chillida-lekun egindako emanaldia da dvd-ak dakarrena.

Behin proiektua eginda, ba ote da erantzunik? Zergatik musikatu dira hain emakume poetaren lan gutxi? "Kulturaren arloan jarduten duten gizon gehienek uste dute gizonek egindakoa (musika, literatura...) unibertsala dela eta emakumeona, sektoriala. Gurea berezia da, emakumeoi dagokigu, izenondoa behar du", erantzun du Urretabizkaia. "Ezjakintasunarengatik, errutinengatik, ez dagoelako gizartearen sektore, giro eta zirrikitu bakar bat ere ikusgarritasunaren atea zabaldu dienik emakumei oro har eta emakumeen poesiari gure kasuan", gaineratu du Lertxundik.

HEKTOR ORTEGA
Kazetaria

Sergio del Molino
nos lleva a un
territorio que nos
pertenece a todos: la
piel.

El autor de *La España vacía* vuelve para hacer que nos miremos como nunca lo habíamos hecho.



«Uno de los escritores
más brillantes de mi
generación.»

ANDRÉS NEUMAN

© Patricia J. Garcinuño




ALFAGUARA

Penguin
Random House
Grupo Editorial

ŽIŽEKEN IZURRIA!

Danele Sarriugartek Slavoj Žižek filosofo esloveniarraren *Pan(dem)ic!* ekarri du euskarara, Txalaparta argitaletxean. Jatorrizko hizkuntzaren bikoiztasuna gorde du izenburuak euskal edizioan: *IZURRIA!* Pandemiak beldurra hedatu duen honetan, etorkizunaz gogoeta egitea dagokigu. Imanol Galfarsoro elkarriketatu dugu horretarako, liburuaren hitzostegilea eta *International Journal of Žižek Studies*en editorea bera.



Zenbait mediotan irakurri dugu Žižekek “kapitalismoaren amaiera” iragarri duela liburu honetan. Hala da?

Žižeken ezaugarri nagusietakoa bikoiztasuna da, eta, oro har, ezkor dirau pandemiak eraginda gizarteak hobera aldatuko denik. Argi dagoen bakarra da birusak gure bizitzaren oinarriak desegingo dituela, eta horrek, sekulako sufrimendua sortzeaz gain, izugarritzko kalteak eragingo ditu. Liburuaren hasiera-hasieratik adierazten duen bezala, bestalde, epidemiak ez gaitu zuhurrako bihurtuko.

Erantzuna ez dator norbanakoaren erantzukizunetik?

Ez. Erantzuna kolektiboa eta komuna denari begiratzetik dator. Eta bai, Žižekek badaki, zeharka liburu honetan ere aipatzen duelako, benetako komunismoaren iraganeko esperientziaren egiaz: desastrea, katastrofea... Baina, hala eta guztiz ere, “komunismo” terminoa erabiltzen duenean, etorkizunerako antolaketa global berri batez ari da.

Komunismoa iragarri baino gehiago, aldarrikatu.

Žižeken arabera, koordinazioa eta elkarkidetzaz azpimarratzeko garaia ez da inoiz izan premiazkoagoa. Pandemiaren ondorioa izugarritzko amesgaiztoa izan ez dadin, merkatu librearen nagusitasunean oinarritzen den sistema ekonomiko neoliberalak gainditu behar da.

Komunismo berrasmatua politika garden eta herriko berriekin garatu behar da. Koronabirusa dela-eta, denok gaude txalupa berean.

Iraganeko normaltasunera itzultzerik ez badago, baina, txalupa horrek bizimodu zahar eta agortua atzean utzi beharko du beste “normal” berri bat eraikitzeko. “Komunismo” hitzak, horrela, ekonomia kontrolatzeko eta arautzeko ahalbidea adierazten du maila globalean. Are eta gehiago, aipatu elkartzasuna eta elkarkidetzaz ez dira nahikeria idealistak, salbatu gaitzakeen aukera arrazional bakarra baizik.

“*Izurriak
ez gaitu zuhurrako
bihurtuko*”

Inozokerian erori gabe, halere.

Ez, Žižekena ez da kinoa-sozialismoa. Pandemiaren ondoren, kapitalismoak ez du zertan indarra galdu. Eta bai, arrisku nabaria dago zer eta jendarteak gogoz onartutako salbuespen egoera iraunkorra normaltzeko, geratzen zaigun sentimendu kolektibo gutxia galdutz eta

nor bere biziraupenaz soilik arduratuz. Bitartean, bestalde, prekaritatea eta murrizketak areagotzen ari dira.

***El hoyo* [Zuloa] filmarekin paralelismoa egiten duzu.**

Ezkortasunean ardatzen den bikoiztasuna nagusi, Žižekek barreiatzen duen ikusbidea alderagarria da, iruditzen zait, *El Hoyo* (2019) filmarekin. Edo, zehatzago, suspensea, zientzia fikzioa eta horrorea nahasten diren distopia honetan, *Galder Gaztelu-Urrutia* zinema zuzendariak lehenesten duen mezu ilun eta zalantzakorrarekin: espezie gisa, gizakia berekoia da, are sabelkoia. Izan ere, filmean nagusitzen den klaustrofobia itogarria da bere arrakasta globalaren arrazoieta bat –koronabirusaren mehatxua gainditze aldera berrogeialdi eta itxialdien garaia islatzeko parabola egokia–. Galdera emankorra, baina, hauxe da: gure gizarte eta espezieen egitura izatez, eta beti, izango al da berekoia (*El Hoyo*), ala pandemiaren krisi globalak gure lehentasunez berriz pentsatzera bultzatuko gaitu (Žižek)?

GARAZI ARRULA RUIZ
Editorea

**4 LIBROS
DE NEGOCIOS
IMPRESCINDIBLES
PARA
EMPRENDEDORES**



“Suiza no es un país tan bucólico como uno podría pensar”

JOËL DICKER

ARGAZKIA: PATRICK FOUQUE

Joël Dicker ha dedicado *El enigma de la habitación 622* a Bernard de Fallois, su “editor, amigo y maestro”. El lector descubrirá a Fallois en las páginas del libro, y también se topará con esa adictiva sensación de anhelo cuyo único propósito es saber lo que ocurrirá después. En el relato conviven el crimen, el amor, la codicia, la envidia, los buenos principios, y también la pasión por la literatura.

Ha escrito su novela más personal. Localizada en Ginebra, su ciudad natal, ha vertido en sus páginas dosis generosas de su existencia más cercana.

Me gustaba la idea de que el lector no supiera dónde estaba la línea entre verdad y ficción, que pudiera meterse en la mente de un escritor y formar parte de ese juego de espejos entre lo auténtico y lo imaginado. Sin ánimo de decepcionar, a pesar de llamarme como el protagonista y de que ambos seamos escritores, no soy yo. Es un personaje de ficción como el resto, una proyección de lo que significa ser escritor para mí.

El libro es un precioso homenaje a su editor Bernard de Fallois. Un libro que él no ha leído y que habla sobre él. ¿Tenía claro que lo iba a incluir en el relato?

No suelo planear nada antes de escribir mis novelas, pre-



EL ENIGMA DE LA HABITACIÓN 622
Joël Dicker
ALFAGUARA

fiero ir sobre la marcha; en este caso, solo tenía claro que el libro sería un homenaje a quien fue un hombre muy importante para mí, le debo toda mi carrera literaria.

¿Qué le atrajo de la banca como contexto para su historia?

No me considero un experto en la banca suiza ni mucho menos, pero me parecía un telón de fondo interesante –y casi imprescindible– si quería que la acción pasara en Ginebra. Además, es la mezcla perfecta entre pasión y dinero; o la pasión por el dinero, según lo quiera uno ver.

La Suiza que describe no es el país tranquilo que imaginamos los foráneos. ¿Ha exagerado mucho?

Siento que la gente tiene una concepción de Suiza que descuida muchos otros matices. En primer lugar, no es un país tan bucólico como uno podría pensar; Ginebra hierve de actividad, es una ciudad moderna y muy cosmopolita. Me parecía importante reivindicar y defender que es un país que puede ofrecer más que montañas verdes y balnearios.

Usted es hijo de librera, y en la novela dedica un lugar especial a los libreros.

Es una profesión maravillosa y siempre que puedo la defiendo y la enaltezco. Los libreros le abren a uno, a través de sus recomendaciones, todo un mundo de descubrimientos que por sí solo le resultarían inexplorables. Para mí, como para cualquier lector ávido, los libreros ocupan un lugar muy especial.

Estos últimos meses nos han vuelto a constatar que la realidad supera a la ficción. ¿Es de los que cree que esta crisis nos hará mejores personas?

Espero que sí, pero nunca se sabe. Creo que nos ha servido para valorar lo que tenemos (y lo que no), nos ha dado tiempo para pensar en cosas que normalmente no teníamos tiempo de pensar. Nos ha demostrado que no somos indestructibles y que las distopías pueden volverse reales.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
https://bit.ly/enigma_habitacion622





VUELVE JOËL DICKER

Su nuevo thriller es su novela más personal

MÁS DE 9.000.000 DE LECTORES SON

#ADICTOSADICKER










Cordillera de libros

El Mundo de los Pirineos ha publicado sus tres primeros títulos en formato libro



La pandemia retrasó la orogénesis, pero no la evitó. Ya están en las librerías los tres primeros títulos de la colección de libros El Mundo de los Pirineos, los primeros hitos de lo que aspira a convertirse en una cordillera de libros. Vio la luz con *Por qué preservar la montaña*. Guía natural de la A a la Z. Rápidamente le siguió *Los últimos glaciares*. *Cumbres imprescindibles (I) Occidental y Central* y ahora llega *Océanos de piedra*. *Cumbres imprescindibles (II) Oriental*. El cuarto título, último del año, aparecerá en otoño.

El Pirineo, nuestra gran cordillera, conforma un mundo en sí mismo. Concita el interés, por supuesto, de la comunidad monta-

ñera, un interés amplio en la medida en la que presenta todo tipo de cimas, desde las familiares hasta las más exigentes y alpinas. Montañas diversas, de paisajes, climas y cubiertas vegetales variopintas, según la roca que aflora (granito, caliza o, incluso, volcánica, sin olvidar las areniscas o la pizarra), los bosques y prados que las tapizan o las nieves que blanquean sus alturas. Esas montañas lloran torrentes que se precipitan en cascadas temerarias antes de confluir con sus hermanos para formar grandes ríos. Una variada panoplia de animales y plantas dan vida a todos sus rincones. El ser humano ha convivido con ellos desde hace milenios, ha modelado el paisaje y ha cocinado a fuego lento culturas y formas de vida respetuosas con el entorno. También ha generado infraestructuras y dinámicas económicas que amenazan con transformar la faz de la cordillera y dañar de forma irreparable su vida natural.

Ese universo es el que protagoniza los libros de El Mundo de los Pirineos, como antes lo hizo con la revista. Quedó condensado en el primer título, *Por qué preservar la montaña*, una suerte de diccionario de todo lo esencial del Pirineo escrito y fotografiado por el naturalista aragonés Eduardo Viñuales. Todo lo que quien esté interesado en la cordillera debe saber, recogido y explicado de manera amena y muy visual. Una guía natural que nos hace ver los Pirineos con una mirada nueva.

Si el primer título actuaba de caja de Pandora de todos los contenidos de la cordillera, *Los últimos glaciares* se desdobra en dos partes bien diferenciadas. Agrupadas bajo el epígrafe "Rutas a cimas imprescindibles del Pirineo occidental y central", veinticinco ascensiones a otras tantas cumbres referenciales copan el grueso del libro. Describas y fotografiadas por el experto montañero alavés Gorka López, incluyen todos los datos necesarios para coronar con éxito las cimas más relevantes comprendidas entre Orhi y Aneto. Precede a esta completa guía montañera, un amplio informe de la directora de Sua Edizioak, Argiñe Areitio, sobre los glaciares pirenaicos, los más meridionales de Europa, hoy al borde de una inexorable desaparición. Recoge su formación, características y situación actual, así como la flora y fauna a ellos ligada y sus efectos sobre el paisaje y el relieve. Todo ello acompañado de excelente material fotográfico, mapas e ilustraciones.





El tercer volumen, *Océanos de piedra*, también presenta un doble contenido. De la mano del fotógrafo paisajista **Sergi Boixader** coronaremos treinta cimas referenciales del Pirineo oriental, desde Mont Valier hasta Canigó, con el mar Mediterráneo ya a sus pies. Una completa guía montañera para acometer con garantías las ascensiones a este selecto grupo de cumbres orientales. Previamente, un extenso dossier da cuenta del proceso de formación de la cordillera, de la formidable orogénesis que configuró ese espacio al que siempre anhelamos volver. Una vez más, el ameno pero documentado texto, obra de **Argiñe Areitio**, viene acompañado de excelente material gráfico (fotografías, ilustraciones y mapas).

Aún falta un cuarto título para cerrar el año. Llegará con el otoño y estará dedicado al valle de Tena, uno de los escenarios de lujo de la cordillera. Su autor no requiere presentación. Se trata del polifacético **Fernando Biarge**, montañero, fotógrafo, escritor y gran conocedor del Pirineo oscense.

Quien quiera disfrutar de todo a un precio inmejorable, tiene la posibilidad de suscribirse a través de la web de Sua Edizioak, www.sua.eus.

TOMAS ZABALLA
Periodista

LIBROS-REVISTA



EL MUNDO DE LOS

S
O
F
E
N
I
R
I
N
E
O
S

La nueva colección de libros recoge con orgullo la herencia de la revista *El Mundo de los Pirineos* (1998-2019). Lo hace tanto al asumir sus mismos planteamientos de cara a la cordillera, como al tratar de trasladar el espíritu que la animaba del formato revista al libro. El resultado es lo que podríamos calificar como libro-revista, con todo el empaque, la profundidad y la durabilidad que requiere un libro, pero sin perder, en la medida de lo posible, la agilidad, dinamismo y visualidad que acompañaban a la revista.

Esa dualidad queda perfectamente reflejada en el diseño de la nueva colección, obra de **Amel Mendizabal**. En su interior, los textos resultan ágiles y de fácil lectura, mientras que el protagonismo de fotografías, mapas e ilustraciones atrae la atención y el interés del público lector.

Las portadas, por su parte, otorgan un tratamiento singular a la fotografía que, presentada en colores vivos, logra captar la mirada de quien los ve. Toda una invitación a abrir sus páginas.

De ahí que los títulos de esta colección sean, tanto por su contenido como por su estética, diferentes. El cuerpo de un libro y el espíritu de una revista.



UN THRILLER QUE TE ENGAÑA HASTA LA ÚLTIMA PÁGINA

En un pequeño pueblo del País Vasco,
nadie tiene secretos para nadie.
¿O tal vez sí?

Síguenos y etiquétanos:
@megustaleer
www.megustaleer.com



Penguin
Random House
Grupo Editorial



Disponible
en ebook

“Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugekin esperimentatzen nabil beti, artea ekintza bilakatzeko xedez”

OIER GUILLAN

ARGAZKIA: MARIO SANCHEZ BRAVO




VHS izeneko nobela kaleratu du Oier Guillanek Susaren eskutik. Konfinamenduak edizio-lan betean harrapatu zuen, eta kontatu digunez, irrikaz dago liburuko pasarteak jendaurrean eta zuzenean irakurri ahal izateko; izan ere, berarentzat “hor osatuko baita liburuarekin esperientzia, jendearekin”.

Has gaitezen izenburutik beretik: VHS deitu diozu nobela honi. Niri behintzat, berehala ekarri dit gogora iragana, iraganaren aldaera berezi bat: norberak bizi izan duen arren oso aspaldi-koa dirudiena.

Izan daiteke. Liburuan dena da jolasa, errealitatearen eta fikzioaren arteko ispilu joko bat, eta titulua hori ere bada: batetik, ondo esan duzun moduan, iraganarekiko sentimendu bat islatzen du. Batzuetan saiatzeko gara oroitzen gure bizitzetan garrantzitsua izan den une bat, eta konturatzen gara akaso sentsazio orokorrak gogoratzen ditugula, baina ez hitz, usain edo kolore zehatzak. Iragana oroitu nahian, batzuetan sentitu izan naiz VHS zinta zahar bat eskuetan edukiko banu bezala: zeozer oso baliotsua dago bertan grabatuta, baina dagoeneko formatu zaharkitua denez ez dago hura ikusteko aparatua lortzerik. Bestetik, liburuko ispilu joko horretan VHS bada zeozer gehiago ere, baina ez dut spoilerrik egingo...

Eleberri honetan, llehoriak Detektibea kontratatuko du, hilketa baten misterioa argitu dezan. Baina ez hilketa eta ez detektibea bera, ez dira arruntak. Misterio eleberri bat da?

Agian bai, agian ez, ez dakit inporta duen. Niri bizitza bera iruditzen zait misterio bat, kutsu erlijiosorik gabe,



VHS
Oier Guillan
SUSA

noski; pertsonak misterio bat dira, jendearen nahiak eta jokamoldeak misterio bat dira, historiaren bazterrean geratutako istorio txiki oro da misterio bat. Liburuan badago nobela beltzen imajinarioa erabiltzerakoan jolas moduko bat, baina helburua ez da izan generoko lan bat egitea. Kontrakoa, genero marka batzuk nabarmenduz generoa difuminatzea izan da ahalegina. Llehoriak Detektibea kontratatuko du, bai, hilketa bat argitzeko; baina hortik aurrera guztia izango da ez ohikoa. Hasteko eta behin, fikziozkoak diren pertsonaiek badutelako fikziozkoak izatearen kontzientzia bat. Bestetik, lan hau oso urrun dago –zentzu guztietan– Roberto Bolañoren *Los detectives salvajes*-etik, baina ez nuke egia osoa esango omenaldia aitortuko ez banu.

Poetatzen eta antzerkilaritzat hartu izan zaitudala esango nuke, eta iruditzen zait liburu honetan badirela halako kutsu berezi batzuk, esaterako, absurdoaren oihartzuna aditu dut elkarrizketen tonuan. Nola ikusten duzu zure bilakabidea?

Absurdoa oso maite dudana adierazteko modua da, umore eta ironiara iristeko modu bat, errealitatea asimilatzen saiatzeko heldulekua. Hasieratik oso argi nuen umore zatiak eta gogoeta pisutsuagoak elkarrekin kontrastean joan behar zutela. Bizitza ere halakoxea sentitzen dudalako, absurdoa, eta serioa, eta tarteka ba-

rregarria. Sarritan esaten da idazle batek etengabe liburu bera idazten duela, liburu ideal definitibo horren bila dagoela modu ezberdinetan. Zentzu horretan, liburu hau oso gertu ikusten dut aurretik idatzita-koetatik, forma ezberdinak hartu arren bilaketa bera da. Agian kontrako bidea saiatzeko ari naiz egiten, berridazle zehatzasun osoz buruan idatzita izan dudana liburu aldiko modu ezberdinetan desegituratzen ari naiz; batzuetan poesia moduan, besteetan antzerki, edo saiakera, edo narrazio moduan. Poesiatik iritsi nintzen behinola antzerkira, eta horregatik, agian, performancearekin lotura duten kodeetan nabil edozein forma hartuta ere: errealitatearen eta fikzioaren arteko mugekin esperimentatuz, artea ekintza bilakatzeko xedez. Edo, agian, hau guzti hau koartada diskurtsibo oso eder bat da, eta ez dakit besterik egiten beste modu batean.

Nola eragin dio konfinamenduak eleberri honen prozesuari?

Alde batetik, hainbeste eromen surrealisten artean, hainbeste kolpe politiko kezagarriaren artean, zentzutasuna mantentzeko salbamendu-jaka izan da. Guztia mugarik gabeko paralisian murgilduta zegoenean, –antzokiak, besteak beste, itxirik–, idazten jarraitu ahal izan dut; helburu bat proiektatzen, nahiz eta ez jakin irakurlearengana noiz iritsiko zen. Edizio prozesua itxialdian zehar egin dugu, eta niretzat intentsua eta izugarri motibagarria izan da. Bestetik, galdera egiten nion neure buruari: tamainako eztanda sozial eta kultural baten ostean, aurretik idatzitako oro iraungita geratuko zen? Zentzua izango zuen liburuak koronabirusaren osteko jendartearen? Kapituluak jardun genuen edizioan lanean, eta azken kolpe batean osorik berrirakurtzea izan zen suzko froga: lasaitu egin nintzen, are gehiago, pasarte batzuei lehen baino gaurkotasan handiagoa ikusi nien.

Koronabirusak ekarritako erronkarekin jarraituz, nola ikusten duzu kultur jardunaren etorkizuna?


Kultura telematikoa momentuko urgentziari erantzuteko antidoto ona izan den arren, ezin zaigu bide hori besterik gabe instalatua geratu. Ezerk ezin du ordezkatu itxialdia amaitzeko zela MPK bildumako liburuak harpidetzari esker etxean jasotzearen sentitu nuen zirra: liburu berriak, bizitzeko droga berriak! Ezerk ezin ditu ordezkatu zuzeneko besarkada ilegalak, muxu klandestino arduratsuak, eta batez ere, ezin dira ordezkatu zuzeneko musika eta antzerki emanaldiak. Zaila izan arren moduak topatu behar dira, ezin gara besterik gabe kultura telematikorekin konformatu. Desiratzen nago VHS liburuko pasarteren bat zuzenean irakurri ahal izateko, jendaurrean, berdinean zait nola, baina egin. Hor, jendearekin, osatuko da guztiz niretzat liburuaren esperientzia.

DANELE SARRIUGARTE
Idazlea

“Lete irakurtzeko kritikotasunez pentsatzeko prest egon behar da”

ALEX GURRUTXAGA

Xabier Lete Aberriaren Poeta Kantaria liburuan Alex Gurrutxaga Muxikak (1988, Zarautz) miraz eta pasioz estalgabetu du sortzailearen emana. Luze eta zabal hitz egin dugu haren bizitzaz eta obraz.



**XABIER LETE
ABERRIAREN
POETA KANTARIA**
Alex Gurrutxaga
ALBERDANIA

Xabier Letek Iruñean eman zuen erreztaldia irudiarekin hasi duzu liburu. Hunkiduraz hasiko du irakurleak Xabier Lete Aberriaren Poeta Kantaria (Alberdania 2020) liburuaren irakurketa? Bai, irudia hunkigarria iruditzen zait, bai, eta esanguratsua. Letek poesia erreztaldi zenbait eman zituen bere azken urteetan, 2008 eta 2010 bitartean, eta izugarria izan

zen haietan sortu zen giroa; sumatzen ziren jendearen hunkidura, zerbaiten parte izatea, esker on sentipena... Iruditzen zait erreztaldi haietan Lete euskaldunak agurtzen ari zela, eta jendeak maitasuna adierazi ziola.

Zer dauka Xabier Leteren figurak horren gure dela sentiarazteko?

Letek hitzak jarri zizkion euskaldunok bizitakoari; garai edo gertakari askoren aurrean, Leteren kantuetan ispilu zintzo bat aurkitu du euskaldunak.

Tesia eta liburuaren direla-eta, zazpi urte eman dituzu Leteren bueltan eta pasio handiarekin hitz egiten duzu Xabier Leteren inguruan. Idazketa prozesua ere horrelakoa izan da?

Intensitate handikoa izan da. Une batzuetan asko disfrutatu dut, baina, oro har, egunak asko luzatu dira, eta gauak gehiegi laburtu. Eguneroko ohiko lanez gain egindakoa izan da hau. Eta, gainera, aitortu dezaket ez dakidala zerbait idatzi eta jo eta pasa egiten, konformatzen,

behin eta berriz itzultzen naiz hara, ozen irakurtzen dut, aldatu, zuzendu...

Hasiera eta amaiera kapituluek gain, liburuaren hiru ataletan ardatzu duzu. Nola landu dituzu bereizketa kronologikoak?

Banaketa guztiak izaten dira konbentzioak. Berez, absurdoa da bizitza-ibilbide bat hiru fasetan banatzea; bizitza bat ezin da tarta bat bezala zatitu. Gertatzen da, mundua esplikatzen, halako zatiketa funtzionalak behar ditugula, eta Leteren obraren bilakabidea azaltzeko modu eraginkorrena hiru garai horiek bereiztea da. Hiru atal horien barruan, pieza asko dago. Ikuspegi globala hartu nahi nuen, ez nuen nahi Leteren obraren ertz bati buruz bakarrik aritu. Baina ezin nuen neukan dena sartu. Begirada zabal horri eusteko, etengabe buruan neukan hitza “oreka” zen.

Leteren obra ulertzeko zer uste duzu dela ezinbesteko?

Lete oso konplexua da, kontraesankorra, aldakorra... Horrek, egia da, zaildu egiten du hura ulertzea. Beharbada, batzuetan, baita harekin enpatia sortzea ere. Niri ere pasatzen zait. Edonola ere, jarrera irekia baldin badaukazu, Leteren figurak sekulako aukera ematen du Euskal Herriaz, euskal kulturaz pentsatzeko. 60etatik 2010era, mende erdiaren ispilu bat eskaintzen digu Letek. Jakina aldaketak izan zituela, kontraesanak... Nire ustez, Lete ez ulertzeko arrisku bakarra jarrera itxia izatea da. Herri honetan gaitasun handia izan dugu, zorritzarrez, dominak eta kondenak erraz partitzen. Jarrera horrekin, alferrik zoaz Lete irakurtzera. Lete irakurtzeko kritikotasunez pentsatzeko prest egon behar da.

LEIRE PALACIOS

Kazetaria

Elkarrizketa osorik:
https://bit.ly/xabier_lete



Lecturas imprescindibles, también en bolsillo




booket

JUAN LEKUE

Solitude, la cara B de la "conquista" vasca del Oeste de EE.UU.

Juan Lekue (Arrigorriaga, 1964), licenciado en Filología Inglesa, es el autor de *Solitude* (Txertoa), una novela asombrosa sobre la cara B de la "conquista" vasca del Oeste de EE.UU.



SOLITUDE
Juan Lekue
TXERTOA

¿Qué historia esconde el título *Solitude*?

La de Jean Claude y Lucille, naturales de Itxassou, que, como tantos otros vascos, emigraron a EE.UU. a principios del siglo XX y se vieron atrapados entre unas condiciones de vida extremas y la nostalgia del "Viejo País". Narra el viaje a través del océano, el paso por la isla de Ellis, la ruta hacia el Oeste...

Una ruta jalonada por hoteles vascos.

Estos hoteles fueron fundamentales. Allí les proporci-

naban a los recién llegados manutención y les buscaban empleo, generalmente en el pastoreo. Las condiciones eran tremendas: durante ocho meses, el pastor estaba en el desierto o las montañas, con la única compañía de dos perros y 2.000 ovejas. Es aquí donde el título, *Solitude*, adquiere su sentido más despiadado.

La novela incluye un contrapunto: el Nueva York de los años 20 y 30.


He tratado de reconstruir aquel Nueva York "de los vascos"... la calle 14, el Centro Vasco, el hotel Santa Lucía, propiedad de Valentín Aguirre, referencia ineludible. También los locales de moda, como el Cotton Club, el Village Vanguard o el Stork Club. No hay que perder de vista que aquella fue la época de la Ley Seca, del crack del 29, del cine mudo y el comienzo del sonoro, del boxeo...

¿Cómo surge *Solitude*?

Surge en el Jaialdi de Boise, Idaho, cuya última edición se celebró hace cinco años. Es un festival muy relevante, en el que se reúnen los descendientes de aquellos que sufrieron, pero lograron su propósito y progresaron. Coincidiendo con el Jaialdi, llegó a mis manos un artículo que incidió en que no todos lo consiguieron. Eso me llevó a interesarme por la historia de los perdedores, que también merece ser recordada.

La labor de documentación, a simple vista, parece ingente.

Ha sido ardua, pero también placentera, sobre todo a medida que iban aflorando historias que he incluido en la novela, como la de los 150 vascos que bloquearon el flujo migratorio en Nueva York porque nadie les



ARGAZKIA: TXERTOA

entendía, la persecución implacable a una familia india acusada de matar a tres pastores o el caso de Domingo Malaxechevarría, el primer vasco que murió en la cámara de gas.

Aparecen muchísimos personajes históricos, vascos y no vascos...

En esta novela hay dos caminos que se cruzan: uno, de pura ficción y, otro, cercano a la crónica, basado en hechos reales. Es ahí donde aparecen Salinger, Uzcudun, Chaplin y otros muchos.

El papel de Ravel va más allá del simple cameo.

La novela necesitaba una música y qué música más apropiada que la de Ravel, natural de Ziburu, pueblo cercano al de los protagonistas, y que arrastró hasta su muerte el trauma de lo vivido en Verdún, algo que podía acercarlo a la situación psicológica de Jean Claude. Pero la de Ravel no es tampoco la única música que puede escucharse en la novela.

KARMELE URRUTIA
Periodista

**EUSKARA
ETA KULTURA
HERRIAREN
GEROA**



ekar
fundazioa

Zailtasunen gainera, aurrera



COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondotik, krisi ekonomiko zitalak harrapatu gaitu beste behin ere. Kultur munduan, lehendik ere zailtasunak ez baziren gutxi, pandemia honek egoera oso zailean jarri ditu sortzaile eta eragile asko. Aldi berean, bi gauza erakutsi dizkigu bizi dugun egoerak, age-

rian utzi du zein zaugarria den kultura -are gehiago euskal kultura-, eta bere balioa ere erakutsi digu, kultura izan baita etxealdian eman behar izan ditugun orduak betetzen lagundu diguna. Itxialdiak balio izan badu kulturari dagokion lekua ematen hasteko, agian ekarpenen bat ere egingo zuen.

Kulturaren eremuan, liburu eta musikarena da bereziki **elkar** Taldearen sektorea, eta horretan ere eragin nabarmena izan du pandemiak. Hasteko, ia bi hilabetez itxita izan dira liburu dendak, eta ondorioz argitaletxeek beren jarduna etenda izan dute, alferrikakoa baitzen liburu berriak kaleratzea haiek irakurlearen eskura jartzeko aukerarik gabe, eta horrek eragin du idazleen lan berriak ez kaleratzea. Urte zaila izango da liburuaren eta musikaren munduarentzat, eragin ekonomiko handia izango baitu horrek guztiak eta zenbait sortzaile lan argitalpea atzeratzea ekarriko baitu.

Eta oraindik ezin jakin aurrera begira zer ekarriko duen. Pixkanaka gertatzen ari den digitalizazio prozesua azkar daiteke hezkuntzan, baldin eta ikasleek ikasketen parte bat etxetik egin beharko badute datorren urtera begira. Jendea Internet bidez erostera ohitu denez, erosteko moduetan ere ohitura berriak gera daitezke, eta horren ondorioa liburu dendek jasango dute. Orain izango dugu aukera ikusteko

zerbait aldatu den eta kultura lehentasunen artera pasatzeko urratsak egingo dituen euskal gizarteak, eta bide bera egingo duten Euskal Herriko erakunde publikoek. Euskarak eta euskal kulturak zentraltasuna behar dute, herri hau euskaratik eraiki dezagun. Denon ahalegina beharko da egoera honi buelta emateko.

Ez da, beraz, egoera samurra eskuartean duguna, baina horrek ezin du dena geratu. 50 urteko ibilbidea beteko du laster elkar proiektuak. Urte horietan, askotan pasa behar izan ditu egoera zailak, eta behin baino gehiagotan berregokitu behar izan du bere jarduerara, garaian garaiko aldaketak hala eskatuta. Horrelako egoera batean dago elkar une honetan, eta ez hura bakarrik, eremu guztietara etorri baita berregokitu beharra, oraingoz behintzat, guztion bizitzeko moduak aldatzen ari baitira: lanerako aukerak eta erak, aisialdirakoak eta abar.

Etengabe ari da gogoetan **elkar** Fundazioa osatzen duen taldea, asmatu nahian egoera berrira

nola egokitu. Euskara eta euskal kultura helburu dituen erakunde honen zereginak izan behar du datozen aldaketetara moldatu eta kultur azpiegiturak egokitzea, kultur sormenak behar duen lekua izan dezan, batez ere liburu eta musikaren eremuan, bere jarduerara nagusia hura baita. Argitaletxe, banaketa egitura eta liburu dendak behar ditu euskal liburuak, baina garaia eskatuko du horiek birpentsatzea eta hemendik aurrerako beharretara egokitzea. Orain zaila da ikustea nola, baina ziur gara asmatuko dugula bide horretan.

Bitartean, bere egitekoari eutsita, momentuko lehentasuna pertsonengan ere jarri behar du Fundazioak: osasun arazo larririk gabe pasa dugu lehen fasea, eta oraingo ahaleginak izan behar du pertsona guztiek bere lanari eusteko aukera izatea.

Garai zaila da denontzat, bai, baina elkar hartzen badugu, honi ere aurre egingo diogu. Noiz izan dira, bada, garai samurrak euskara eta euskal kulturarentzat?

ISTORIO BAKARRA ETA LARANJA MEKANIKOA

Meettok argitaletxeak garai guztietako literatura plazaratu du euskaraz eta erdaraz. Besteak beste, Groucho Marx, Kari Hotakainen, Jean Echenoz, Philip Roth, John Gardner, Joan Margarit, Harkaitz Cano, John Hawkes, Iñigo Aranbarri, Alice Munro, Itxaro Borda, Lev Tolstoi, Joseph Conrad, Samuel Beckett, William Shakespeare, Phillpi K. Dick, Michel Houellebecq... Euskarazko titulu berrienak erakusgarri ederra izan daitezke.

Istorio bakarra nobelan Julian Barnes bikote baten zirrikietan sartzen da. Iraun al dezake maitasun batek betiko, baita mingarria bada ere? Noraino hel daiteke gizartearen konbentzioekin bat ez datorren bikote bat, batez ere bikotekideen artean adin

ezberdintasun handia badago? Maitasunaren alde argiak alde iluna ere izan ohi du itsatsita. Elkarbizitzaren herdoila. Lehenago edo geroago gezurak heltzen dira. Bikotekideek harremanari eusten diote, baina agian utzikieragatik edo koldarkeriagatik. Askatzea izan daiteke irtenbidea. Baina inoiz aska al zaitezke benetan istorio bakar horretaz?

Barnesen ohiko gaiak aurkituko ditu irakurleak azken nobela honetan: maitasuna, bizitzaren zentzua, gasetasuna eta zahartzarora, belaunaldien arteko talka, oroimena... Barnesek berezkoa duen zigilurekin gainera: ironia, sakontasuna eta zehaztasuna.

Artefaktu berezia da *Laranja Mekanikoa*. Anthony Burgess idazleak eman zuen argitara Ingalaterran lehen aldiz 1962an, eta ondoren, 1971n, Stanley Kubrick zuzendariaren film bertsioarekin batera zabaldu zuen ospea munduan barrena. Apurtzailea izan zen filma estetikoki, soinu eta irudiz. Alde etikotik, bestalde, galdera zorrotz ugari sorraz zituen. Alabaina, fokuen argiak itzalpean utzi zituen liburuaren hainbat puntu nagusi; esate baterako, ba al dakigu nondik datorren *Laranja Mekanikoa* izenburua?


Uste baino geruza gehiago ditu laranja. Zenbat eta gehiago ezagutu testuaren barrunbeak, orduan eta biziagoa iruditzen zaigu *Laranja Mekanikoa*.

MEETTOK

ISTORIO BAKARRA
Julian Barnes
MEETTOK



LARANJA MEKANIKOA
Anthony Burgess
MEETTOK



POESIA GUZTIA
SAFO
BALEA ZURIA

BALEA ZURIA

Maitasuna kolore askotakoa dela erakusten dute, beste gauza askoren artean, *Saforen* poemak, eta haren poesia ulertzeko behar-beharrezkoa da maitasuna bere zentzurik zabalenean ulertzeko prest egotea. Emakume batek konposaturiko poemak emakume izate hutsagatik beste ikuspegi batetik neurtzeari uzten diogunean, orduantxe iritsiko gara poesiaren edertasunaz benetan gozatzea. Olerkien edukia eta erritmoa egilearen generoari erreparatu gabe eta horrek berarekin dakartzan konnotazioak erabat baztertuz arnastea, horixe da poesiaren zinezko kutsua.

Baina, era berean, *Safo*, kulturaren arloan, salbuespen aparta da: emakume baten benetako ahotz batek bere desioa adierazten du inolako bitartekari maskulinorik gabe. Ez dago mendekotasun-zantzurik, ez literaturari dagokionez, ez bizitzari dagokionez. Fedra, Klitemnestra, Antigona, Hekuba, Kasandra, Medea, besteak beste, eszena tragiko atikoa- ren heroina liluragarriak izanik ere, gizonen sortuak izan ziren, gizonen publiko bati zuzendurik, baina *Saforen* hitza berak beste inork berregin gabe datorkigu. *Safok* gorputzaren hizkuntza menderatzen du; beraz, emakumeei eta beren sexualitateari buruz

hitz egiten duen emakumea da. Horregatik, *Safok*, autore bezala, arrangura ez nolanahikoa eragin zuen, horregatik asaldatu zituen akademia-munduko jendeak, horregatik leporatu zitzaion sasibiografia harrigarri bat, jasan ezina baitzitzaion, nonbait, emakume batek gai horiei buruz hain goi-mailako literatura egitea, hain modu irekian gainera. Ez da inoiz hiltzen edertasunari egiten dion kantua, edo berak zioen bezala, "eguzkiaren eta edertasunaren desira distiratsua". *Safo* agorrezina da, bere hitz bakoitzak taupaka egiten du, kantuan ari da distiratsu Egeoko iparraldeko uharte urrun hartatik.

SAFOREN POESIA

GRANDES HISTORIAS EN BOLSILLO PARA EL VERANO



booket

ENE HERRI TXIKIA: GAËL FAYE

IGELA

Ene herri txikia (*Petit Pays*) Gaël Fayeren lehen eleberria da. Gaël Faye hip-hop kantari gisa egin zen ezaguna lehenbizi. Eleberri hau 2016an argitaratu zenean, ordea, izugarrizko arrakasta lortu zuen: Zenbait sari jaso ditu, besteak beste Prix Goncourt des Lycéens 2016an.


Ene herri txikia tutsien eta hutuen arteko gerrak eta erbestealdiak markatutako haur baten istorioa da. Gaby, protagonista, hamar urteko mutiko bat da, aita frantziarra eta ama ruandarra dituen. Bujumburan sortu eta hazi zen (Burundin), arreba Anarekin, gurasoekin eta auzoko lagunekin; haur denbora zoriontsua, inondik ere, bihurriketaz eta abenturaz betea. Gabyren paradisu, ordea, zartatzen hasiko da, gurasoen bereiztearekin lehenbizi, eta hutuen eta tu-

tsien arteko gatazkaren ondorioz gero: XX. mendeko genozidio lazgarriaren baten biktimetako bat izango da Gaby. Azkenik, Frantziara alde egingo dute Gabyk eta bere arreba Anak, eta Paris inguruko herri batean finkatuko dira.


Gaël Fayeren alter egoa da Gaby, kontakizuna ez da erabat autobiografikoa, baina idazlearen biografiak zipriztinduta dago. Gaël Faye Bujumburan sortu (1982) eta hazi zen, Burundiko hiriburuan. Burundiko 1993ko gerra zibila piztu eta Ruandako 1994ko genozidioa gertatu ondoren, ihesean atera behar izan zuen sorterritik, eta Frantziara joan zen babes bila. Nerabezaroan, Versaillesen, rapa eta hip-hop ezagutu zituen, eta musikak aukera eman zion bere haur-

tzaroa, herrimina eta erbestealdia kontatzeko eta kantatzeko.

Gaztetxoentzat aproposa da, baina baita hamabost bat urtetik gorako edonorentzat ere. Erraz irakurtzen da, baina sinpletasun horretan ere maisutasunez lantzen ditu zenbait gai. Horregatik da, hain zuzen ere, lan borobila, gai unibertsalez mintzatzen delako; haurtzaro galduaz, adiskidetasunaz, maitemina, kolonialismoaz eta arrazakeriaz, identitateaz eta sustraiez, errefuxiatuez eta erbestealdiaz, genozidioaz eta gatazka politikoaz, irakurzaletasunaz eta ama-hizkuntzaz. Izan ere, gai horiek denonak dira, bizileku eta garai jakin batean bizitzea egokitu bazaigu ere, eta on egiten digu halako bidelagun aske eta zintzo batekin gai horiei buruz gogoeta egiteak.



ENE HERRI TXIKIA
Gaël Faye
IGELA



BOST EGUN, BOST GAU
Manuel Tiago
KATAKRAK

KATAKRAK

1960ko eta 1970eko hamarkadetan milioi bat zazpiehun mila lagun joan ziren Portugaldira. Hiru arrazoi nagusik bultzatzen zuten ihesa: diktadura militarra, gerra kolonialak eta behar ekonomikoak. Den-denak ez baina saldoa klandestinoki pasako ziren Francoren menpeko Espainiatik Frantziarako bidean. Zer dakarren *Bost egun, bost gau* liburuak? Bada pasa horri buruzko eleberri labur bat eta bi ipuin. Den-denak norabide berean doazen etorkinei buruzkoak. Giza eskubideen inguruko txostenez gain ibilbide laburrekoa zen migrazio literatura 70eko hamarkadan Manuel Tiagok lan hauek landu zituen. Eta hori da lanon nabar-

mentzeko puntuetako bat: fikziotik dago kontatua migrazioa. Hau ez da kazetaritza erreportaia, ez da polizia ikerketa, narra-tzaile baten muntaia bat da.

Manuel Tiago XX. mendeko portugesezko idazle nabarmenetako bat izan zen, bederatzir liburu eman zituen, narrazio laburrak eta eleberriak. Bere fikzioan migrazioak toki nabarmena izan zuten. Inork ez zekien Tiago idazle eta margolariaren atzeko pertsona nor zen (bere bizitzaren amaieran Álvaro Cunhal-ek aitortu zuen arte). Cunhal 31 urtez Portugalgo Alderdi Komunistako idazkari nagusia izan zen, bere hiletan 500.000 lagun batu zituen.

Liburuak hitzaurre bat dakar, Amets Arzallus Antia *Miñan* (Susa 2019) liburuaren egileak Bidasoak banantzen duen egungo mugatik idatzia. Hitzatzea ere badauka, liburuaren itzultzaile Inigo Roque Eguzkitzak osatua. Roque ibilbide bat egiten du pertsonen trafikoak Hegoaldean nobelan kokatutako hamarkadetan izan zituen pasadizoekin (prentsa txatalak, elkarriketak eta bertsoak erabiltzen ditu). Gure historia garaikide ilunaren testigantza bat.

140 orrialdean bost harribitxi, liburu berean suspentseko fikzioa eta historia, ezabatutakoa ikertzen hasteko.

BOST EGUN, BOST GAU



PENTSIOEN GEROA, COVID-19ren garaian

Pentsioen geroa ondu du Jon Fernandez kazetariak. Bertan, modu dokumentatu bezain didaktikoan azaldu ditu pentsio-sistema publikoaren arazoak eta konponbide posibleak. Berriak, Jakinek eta Elkarrek Aleka bilduman lankidetzan argitaratu duten liburu hau une ezin aproposagoan iritsi da, koronabirusak dagoeneko atzeraezin bihurtu baitu pentsio-sistemaren erreformaren inguruko eztabaida soziala.

Hamaika aldiz entzun dugu: gaur egun, pentsioak, gehienbat, kotizazioen bidez ordaintzen dira, baina Gizarte Segurantzak gero eta kotizazioen bidezko diru-sarrera gutxiago eta, aldiz, gero eta pentsio gehiago ordaindu behar dituen gero, sistema krisi betean dago.

Krisi honi nola edo hala aurre egiteko, orain arte aplikatu diren errezetak, funtsean, Augusto enperadorearen garaian soldaduekin aplikatu ziren berberak izan dira, hau da, erretiro-adina atzeratzea eta erretiro-sariak murriztea. Errezeta hauek gizartearen sortutako ondoez sakona estu-estu lotuta dago pentsiodunek azken bi urteotan sustatu dituzten mobilizazio jendetsuekin, noski.

Nolanahi ere, koronabirusak pentsio-sistema publikoaren krisi hori areagotu baino ez du egingo. Alde batetik,



PENTSIOEN GEROA
EZTABAIDA SOZIAL BATERAKO GAKOAK
Jon Fernandez
BERRIA · ELKAR · JAKIN

osasun-krisiak handitutako langabeziaren eraginez, kotizatzaile gutxiago egongo dira sistema diruz hornitzeko, eta, bestetik, diru gehiago beharko da pentsioez gain langabe gehiagoren sariak ere ordaintzeko. Alegia, pentsioen "defizita" delako hori nabarmen handituko da. Gauzak horrela, Augustoren garaiko errezeretatik harago, defizit horri beheragoz aterabide bat eman beharko zaio, epe laburrean eman ere.

Ba ote da, ordea, aterabiderik? Ez ote gaude Augustoren garaiko errezeretara edo, are okerrago, pentsio publikorik gabeko etorkizunera kondenatuta? Pentsio-plan pribatuak aukera bakarra ote? Liburuaren irakurketak hamaita argudio ematen ditu ondorioztatzeko ez dela egia pentsio publikoek etorkizunik ez dutenik, sarri hori modu interesatuan sinetsarazi nahi diguten arren.

Hori bai, aterabide erraza denik ere ez da egia, besteak beste pentsioen krisia guztiz txirikordatuta dagoelako gure gizartearen egiturazko beste arazo batzuekin, hala nola, zahartzearekin, zaintza alorreko krisiarekin edota lan-prekarietatearekin. Esaterako, zaintza benetan baloratzen badugu, aldi batez lan-bizitza (norbait zaintzeko) albo batera utzi duen pertsonari ezin zaio gero pentsioan zigortu. Halaber, lan-merkatua prekarietatean oinarritzen bada, Gizarte Segurantzak nekez izango ditu kotizazio bidezko diru-sarrera gehiago. Alde horretatik, pentsioen inguruko eztabaida "matrioxka" bat bezalako ikusten du Jon Fernandezek. Edo tipula bat bezalako, geruzaz geruza aztertu behar dena.

Eta horixe egin du liburuan. Horretarako, hogeita hamar bat aditu eta pentsiodun elkartetako kideren iritzia bildu ditu. Iriztiak, bai, baina ez iritsi hutsak, datuetan sendo oinarritutako iriztiak baizik. Datu horiek, halaber, hogeita hamar infografiatan islatuta geratu dira.

Beraz, pentsioen inguruko eztabaida sozialerako gakoak, taxuz eta garbi azalduta.

KARMELE URRUTIA
Kazetaria




novedades
recomendadas
PARA ESTE VERANO

UDA HONETARAKO
gomendatutako
nobedadeak





gehiago nahi? www.txalaparta.eus



JABI ELORTZA

Gazteentzako nobela berria plazaratu du Jabi Elortzak (Bilbo, 1973): *Gezurren habia*, neska nerabe baten desagerketarekin abiatzen den istorioa, aurrera egin ahala erritmoa bizkortu eta jakin-mina handituz doana.



ARCAZKIA: RAQUEL CERMENO

Errealitatean ikusi duzunaren isla da hori?

Errealitatetik edan egin behar da horrelako nobela errealista bat egiteko; hala ere, idazten dudana fikzioa da. Bestalde, nobela hauetako pertsonaiek egiten dituzten gauzak justifikatu egiten dira ia beti, gazte horiek beren gurasoen eta heziketaren biktimak direlako. Irakurlea haien alde jartzen da lehenengo momentutik.

Azken nobelan abiada izugarria lortu duzu, eta ekintzaren jirabira bakoitzak aurrekoa gainditzea, irakurleak bere buruari galdetzeraino: "noraino iritsiko dira hauek?". Nahita landutako teknika izan da?

Hori da helburua, irakurlea hasieratik zurrunbiloan sarraraztea eta jarraitzeko grina piztea. Hala ere, ez dela gauza erraza uste dut, gaur egungo gazteek oso interes iturri potentek dituzte eskura eta ia ezinezkoa iruditzen zait literatura maila horretara hurbiltzea.

Teknologia berriek eta haiekiko menpekotasunak leku nabarmena dute eleberrir honetan. Horren arriskua ikusten duzu zure inguruan?

Gazteekin lan egiten dugunok nahiko kritikoa gara gai honekin. Gaur egun ikastetxe eta institutuetan ditugun diziplina arazorik larrienak sare sozialen eta teknologia berrien eskutik datoz. Nik argi daukat zerbait egin behar dela, taxuzko zerbait. Zorixarrez, legeak ez digula inoiz gai honetan lagunduko uste dut, eta, beraz, geratzen zaigun aukera bakarra hezkuntza zentroetan eta etxeetan umeak txiki-txikitatik ondo hezte da. Era berean, gurasoek beren seme-alabek interneten egiten dutenaren erabateko kontrola izan behar dutela uste dut. Gurasoen laguntzarik gabe ez dago zeregirik.



GEZURREN HABIA
Jabi Elortza
ELKAR

dudalako, eta horrez gain nabari da ikuspuntu kritiko bat arlo askotara hedatzen dena.

Zure nobela horietan nabarmena da estilo errealista bat eta gaur egungo gizarteko gai gordinak tratatzeko asmoa, ezta?

Badaude zenbait gai nobela hauetan errepikatzen direnak: sare sozialak, gazteen arteko maitasun istorioak, ikastetxe eta institutueta sortzen diren ikasle eta irakasleen arteko liskarrak, familia batzuetan aurki ditzakegun egoera latzak, eskola jazarpena edo bullyinga, alkohola, drogak, festa, sexua... Osagai horiek guztioi gustatzen zaizkigula uste dut, ez nerabeei soilik.

“Ikastetxeetan ditugun diziplina arazo larrienak sare sozialen eskutik datoz”

Zure protagonistak ez dira oso eredugarriak, baina sarritan okerragoak izaten dira haien gurasoak.

TERESA LARREA
Kazetaria

Ez dira asko gazteentzat idazten dutenak euskaraz, eta zu azken urteetako egile oparoenetakoa bihurtu zara: *Sara*, *Kinito egunak*, *Gezurren habia*... Zerk eraman zaitu gazteentzat idaztera?

Hasieran, nire ikasleei gustatuko zitzaizen zerbait idazteko asmoz ekin nion idazteari. *Sara*, nire lehenengo liburua, idazten hasi nintzenean, asmoa ez zen nobela bat idaztea, baizik eta ipuin labur bat, baina istorioan sartu nintzen erabat eta hilabete batzuen buruan amaitu. Hurrengo nobelak ere bide beretik egitea erabaki nuen, gazteen arteko istorioek aukera asko ematen dutela uste



DESCUBRE LA NUEVA NOVELA DE
LOS JUEGOS DEL HAMBRE

BALADA DE
PÁJAROS CANTORES
Y SERPIENTES
SUZANNE COLLINS

RBA

#LosJuegosDelHambre
#RegresoAPanem



TXANO ETA OSCARREN ABENTURAK

XARPA

Kaixo! Txano dut izena, eta anaia biki bat dut: Oscar. Ikusi al duzu inoiz meteorito bat zerutik erortzen? Ba, guk bai... Uda hasieran, txango bat egiten ari ginela, halako batean suzko bola erraldoi batek zeharkatu zuen zerua gure begien aurrean, eta basoan erori zen!

Bai, badakit berehala aldendu behar izango genukeela handik, baina ez, gu meteoritoaren bila abiatu ginen. Baita aurkitu ere! Harri berde bitxi bat zen. Bere distiraren atzean gordetzen zuen sekretuak betiko aldatu zuen gure bizitza.

Argitaratutako azken liburua:

6. Lurpeko bizilagunak

Oroitzen zara gure lehenengo abenturako meteoritoaz?

Bada, Antonov irakasleak laborategi bat muntatu zuen meteoritoa aurkitu genuen krateraren ondoan, eta inguru hartan oso gauza bitxiak gertatzen hasi zirela konturatu zen.

Baina onena da irakasleak egun batzuk pasatzera gonbidatu gintuela hara, eta, azkenean, harri berdeak ezkututzen zuen misterioaren benetako izaera aurkitu genuela.

Bildumako beste liburu batzuk:

1. Harri berdea:

Bizitza arrunt xamarra generaman, harik eta, egun batean, espaziotik etorritako harri berde batekin topo egin genuen arte.

2. Maxi Operazioa:

Twin Cityn txakur desagerketa misterioitsuak emanak ziren, eta guk, egoitza behar genuen. Zer zerkusia du gauza batek bestearekin?

3. Jazeko dragoia:

Ahaztutako dragoia, kondaira miresgarria eta 800 urte baino gehiagoz ezkutuan egondako misterioa.

4 - Dogon herriaren sekretua:

Afrikara bidaia familiarekin, zibilizazio galdu bitxi bat, eta inoiz aurkitu behar ez genuen haitzulo bat. Gurekin etorri nahi?

5 - Konjuru eskarlata:

Magoen ermandade misterioitsu batek kutun bat dauka zaintzapean, mundua sunsitzeko ahalmena duen kutun arriskutsu bat.

Txano eta Oscar anaien abenturak:

dibertsio, abentura eta misterioa kolorez betetako haur-bilduman.


